

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Jabetzan eskainitako 29 etxebizitza babestuen eta errentako 9 etxebizitzaren hasierako adjudikaziodunen zerrenda argitaratu da

Alegazioak aurkezteko epea ireki da urriaren 5a arte

Ostirala, 2018.eko irailak 21

Nafarroako Gobernuak, NASUVINSA sozietate publikoaren bitartez, 38 etxebizitza babesturen [hasierako adjudikaziodunen zerrenda](#) osatu du; horietatik 29 jabetzan eskaini dira Burlatan eta 9 errentamenduan, Tuteran.

Adjudikaziodunen zerrendaren argitalpenaz, alegazioak aurkezteko epea ireki da urriaren 5a arte. Ondoren, behin betiko adjudikaziodunen zerrenda zabalduko da.

Zerrenda herritarren eskura jarri da NASUVINSAREN bulegoetan (Iruleko San Jorge Etorbideko 8an, beheko solairuan) eta Nafarroako Gobernuak Tuteran duen Herritarren Arretarako Bulegoan (Foru Plaza, 5-6). Horrez gain, [Nafarroako Gobernuaren etxebizitza-atarian](#) kontsulta daiteke.

Zerrenda argitaratuta, alegazioak aurkezteko epea ireki da. Alegazioak NASUVINSAK Iruñean eta Tuteran dituen bulegoetan aurkeztu beharko dira. Alegaziak ebatzita, behin-betiko adjudikaziodunen zerrenda argitaratuko da. Ez dira onartuko eskaera bakoitzaren inskripzioan baloratuta gelditu ziren alderdiei buruzko alegazioak. Alegazioren bat aintzat hartuz gero, zerrendak aldatzeko aukera izanen da.

Eskaintzari lotutako etxebizitzak etxebizitza babestuen bi sustapen hauetakoak dira:

[29 PTE salerosketa-araubidean](#), Erripagainan (Burlata).

LA ROJA 2008 S.L. enpresak sustatutakoak (Lezkairu Etorbideko 8, Mutiloa. Telefonoa: 948 787390). Prezio tasatuko etxebizitzak dira, 31/T-0002/2018 espedienteari atxikitakoak. 25 etxebizitzak hiruna logela dituzte (90na metro koadro inguruko azalera erabilgarriarekin), eta 4 etxebizitzan 4na logela (111 eta 115 metro koadro bitarteko azalerarekin).

[9 BOE errentamendu-araubidean](#), Tuteran.

Tuteran, 31/1-0009/2017 espedienteari atxikita, Alvitra Gestión y Servicios S.L. enpresak (Cintruenigoko II. Industrialdeko B Kaleko A Etxaldeko 1K partzela) sustatutako babes ofizialeko etxebizitzak. 3na logela eta 90na metro koadro inguruko azalera erabilgarria dituzten 9 etxebizitza dira.

Etxebizitzei, planoei, prezioei eta kalitatei buruzko informazio guztia Nafarroako Gobernuaren [etxebizitzari buruzko atari tematikoan](#) eskura daiteke.